EREITEN FUNDAZIOA irabazi asmorik gabeko kultura eta gizarte sustapeneko eta zerbitzuko erakunde modura eratu da, eta hezkuntza izango du jardueraren lido nagusietakoa. Izaera iraunkorra du eta nortasun juridiko berezkoa; eta independentea da ezein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu, zibil edo eliztarrekiko, salbu eta Oñatiko SAN LORENTZO MONASTERIOArenkiko (BENEDITAR MOJAK).

Fundazioa honako hauek arautuko dute: estatutu hauek; Patronatuak lantzen dituen arau osagarriek, hala dagokionean; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeak; eta aplikagarri zaizkion gainerako lege xedapenek.

Fundazioak erabateko gaitasun juridikoa du, baita jarduteko gaitasuna ere, estatutu hauetan eta lege xedapenetan ezarritakoak beste mugarik gabe.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak

Fundazioaren helburu nagusia da hezkuntza, kultura eta gizarte sustapena lantzea, haurren eta gazteen zerbitzura, bereziki Oñatiko eta Deba Goieneko haurren eta gazteen zerbitzura. Helburu hori betetzeko, askotariko kultura, gizarte eta hezkuntza establezimenduak baliatuko ditu Fundazioak, berak sortuak nahiz besterengandik jasoak edo partaidetuak, betiere, kalitate gorenekoak eta haurren eta gazteen prestakuntza integralera bideratuak. Helburu hori betetzeko, bi euskarri nagusi hauek hartuko ditu oinarri: A) Gizakiaren eta gizartearen ikuspegi kristaua. B) Euskal Herriaren balio kulturalakiko leialtasuna, eta erabateko inplikazioa euskararen defentsan eta sustapenean.

4. artikulua. – Helburuak garatzea. Jarduerak

1.- Fundazioak egokien initzen dion moduan beteko ditu bere helburuak, bata beste entitate eta erakunde batzuetan parte hartuz ere, estatutu hauetan eta lege xedapenetan ezarritakoak beste mugarik gabe.

2.- Fundazioak berezko eskolak edo ikastetxeak nahiz itunpekoak izan ditzake. Berezkoak izango dira Fundazioak eskuratu edo sortutakoak. Itunpekoak, berriz, Fundazioarekin itunak sinatzen dituzten beste erakunde publiko eta pribatu batzuen jabetzakoak.

3.- Aurreko artikuluan adierazitako xedeak betetzeko, jarduera hauek bideratuko ditu Fundazioak:

- a) Orotariko gradu, maila edo irakaskuntzetako ikastetxeen titulartasuna bere gain hartu. Bere gain hartutako ikastetxeen titulartasunari atxikitako funtzio guztiak bete.
- b) Patronatuak bereziki haurren eta gazteen hezkuntza integrala sustatzeko erabakitzen dituenak, Fundazioaren helburuekin bat etortza.
- c) Bizi osoan zeharreko prestakuntzako jarduerak sustatu eta horien osagarri hezkuntza arloan garapenerako boluntarioritza eta lankidetzak sustatu.
- d) Fundazioaren helburuak leial betetzeko Patronatuak beharrezko initzen direnak.

5. artikulua. – Ikastetxeak

Fundazioaren titulartasuneko ikastetxeek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

- a) Patronatuak ezarritakoari jarraituko diote, aintzat hartuta ideia, printzipio eta balio kristauak eta Barne Araudiak ezarritakoa.
- b) Fundazioaren patronatuak izendatuko du ikastetxearen zuzendaria.
- c) Hezkuntza jarduna pertsonaren ikuspegi kristauek garatuko da, printzipio eta balio kristauekin oinarrituta.
- d) Ikasketa planetan erlijio katolikoaren irakaskuntza sartuko da indarrean dagoen araudiak dioena betez.
- e) Hezkuntza jardueran leialtasunez jarraituko zaie Euskal Herriaren balio kulturalak, eta erabateko inplikazioa izango da euskararen defentsan eta sustapenean.

6. artikulua. – Egoitza



Fundazioaren egoitza SAN LORENTZO MONASTERIOA izango da (Helbidea Arantzazuko Ama, 18, Oñati, Gipuzkoa). Fundazioaren egoitza aldatu ahal izango da. Patronatuak estatutuak aldatzeko akordioa onartuz gero. Hala egitekotan, Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da egoitza berriaren helbidea. Era berean, Patronatuak eskumena du Fundazioaren helburuak betetzeko beharrezko establezimendu, ordezkaritza eta bulegoen egoitzak finkatzeko.

7. artikulua. – Lurralde eremua

Fundazioak nagusiki Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatuko du bere jarduna

8. artikulua - Onuradunak

Fundazioaren prestazioen onuradun izan daitezke Patronatuak onura horiek jasotzeko merezimendua aitortzen dien pertsona fisiko edo juridiko oro.

Fundazioak, interes orokorreko bere helburuen barruan, objektibotasun eta inpartzialtasun irizpideak aplikatuko ditu onuradunak aukeratzeko, inoiako bereizkeriarik egin gabe.

Inola ere ezingo dira Fundazioaren onuradun izan pertsona fisikoak, banaka hartuta. Era berean, ezingo zaizkie eman Fundazioaren prestazioak haren eratzailerik, haien ezkontideek edo laugarren graduaineko ahaideek.

Inork ere ezin izango dio egin alegaziorik Fundazioari edo haren patronatuari, ez banaka ez taldeka, onuradunen gozamenenerako eskubidea eskatzeko onura horiek eman aurretik edo onurak pertsona jakin bati egozteko eskatzeko.

Fundazioaren titulartasuneko ikastetxeek dagokienez, Fundazioaren onuradun izan daitezke dagokien maila edo graduaren ikastetxeko ikasle izateko eskaria egiten duten pertsonak, onarpen baldintza orokorrak betetzen badituzte eta ikastetxearen hezkuntza proiektua onartzen badute. Ikastetxeak har ditzakeen ikaslearen kopurua baino onarpen eskari gehiago izanez gero, Euskadiko Autonomia Erkidegoan ikasleak onartzeari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera eskainiko da hezkuntza prestazioa.

9. artikulua. - Publizitatea

Fundazioaren balizko onuradun eta interesdunei haren jardueren berri emateko, Patronatuak behar adinako publizitatea emango die haren helburu eta jarduerari.

II. TITULUA. PATRONATUA

1. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK.

10. artikulua. - Patronatua

Patronatua da Fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkaritza organo gorena, eta hura arduratuko da Fundazioaren helburuak betetzeko kudeaketa zuzentzeaz eta kontrolatzeaz. Zehazki, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratuko ditu.

11. artikulua. - Osaera

1. Patronatua gutxienez 8 kidek eta gehienez 12 kidek osatuko dute.

Patronatuko berezko kideak izango dira, beren karguari haraxe dagokiolako: Oñatiko SAN LORENTZO MONASTERIOKO (BENEDITAR MOJAK) abadesa eta Oñatiko SAN MIGEL GOIINGERUAREN PARROKIAko erretoa. Kargu horiek mugarik gabeko iraupena izango dute.

Lehenengo patronatuan, Oñatiko SAN LORENTZO MONASTERIOAK (BENEDITAR MOJAK) eta Oñatiko SAN MIGEL GOIINGERUAREN PARROKIAk bina ordezkari izendatuko dituzte, lau urterako, lau urteko epe horren buruan, berriro hautatu ahal izango dira ordezkari horiek berak.

Gobernu organoa osatzen duten entitate juridikoek pertsona fisiko bat izendatu behar dute, Patronatuan beren ordezkari modura jardun dezan.

12. artikulua. - Patronatuko kideak izendatzea, kargutik kentzea eta aldi baterako ezgaitzea, eta hutsik dauden karguak betetzea.

Lehenengo patronatuak sei kide izango ditu, Oñatiko SAN LORENTZO MONASTERIOKO (BENEDITAR MOJAK) abadesa, Oñatiko SAN MIGEL GOIINGERUAREN PARROKIAko erretoa, Oñatiko San Lorenzo monasterioko bi ordezkari eta Oñatiko San Migel Goiingeruaren parrokiako beste bi ordezkari, eraketa eskrituran eratzaliek izendatuak.

Patronatuko kide berriak izendatzea egokiltzen denean, Patronatuan kide gehiago sartzeko edo kideak ordezkatzeko, Patronatuak borak egingo du izendapena izendapena gauzatzeko, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez. Patronatuan kide gehiago sartzeko erabakiz gero, kide berriak izendatzeko garaiari bereziki kontuan hartuko da Fundazioaren berezko kideen espartuan izen ona duten kideak, guraso talde edo elkartearen ordezkariak eta Fundazioaren titulartasuneko ikastetxeetako langileak izatea. Patronaturako kide berriari izendapena ere lau urterako izango da, eta lau urte horien buruan berriro izendatu ahal izango dira kide horiek berak.

Patronatuko kide izendatutakoek beren-beregi onartu beharko dute kargua, Legearen 12. artikuluan aurreikusitako formuletako bat erabilita. Onarpena Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Heriotza, ezintasuna, ezgaitzea, heriotza adierazpena, karguaren indarraizian zehar kanporatzea edo bateraezintasuna gertatzea, ukoa edo kargugabetzea gertatuz gero edo beste edozein egoera dela eta gobernu organoko kide bat ordezkatu edo kargutik kendu behar izanez gero, artikulua honen bigarren paragrafoan azaldutako



prozedura bera erabiliko da hutsuneak betetzeko; karguak ezingo dira hutsik utzi 6 hilabetetik gora.

Patronatuko kideen ardura izango da organo horiek estatu hauen 10. artikuluan akordioek balioa izan dezaten adierazitako gutxieneko kide kopurua duela bermatzea, akordioek balioa izan dezaten.

Patronatuko kideak aldi baterako ezgaitzea erabaki ahal izango du epaileak, baldin eta haien aurka erantzukizun akzioa egikaritu bada, beren karguan Legean eta estatutu hauen 20. artikuluan aurreikusitako arduraz aritu ez badira.

Gobernu organoko kideen ordezkapena, kargutik kentzea eta aldi baterako ezgaitzea Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

Patronatuko kideak kargutik kentzeko egoerak izango dira Euskadiko Fundazioen 12/1994 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoak. Karguari hala dagokiola izendatutako Patronatuko kideei dagokienez, edozein arrazoi dela medio kargutik kenduz gero, Patronatuko kide izaten jarraitzeko gaitasuna galduko dute. Patronatuko kidearen postua pertsona juridiko bati badagokio, haren ordezkar den pertsona fisikoak uko eginez gero edo hura ordezkaritzaz gabetuz gero, Patronatuko kide den entitateak ordezkoa izendatu beharko du, hiru hilabeteko epean, gehienez ere.

Patronatuko kideak kargutik kendu edo aldi baterako ezgaituz gero, Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira aldaketa horiek.

Karguren bat hutsik geldituz gero, jarduneko kargudunak beteko du hutsune hori, behin-behinean.

Fundazioa gobernu organoen titularrik gabe geldituz gero, Babesietzak hornituko ditu karguak.

13. artikulua. - *Doakotasuna*

Patronatuko kideek doan beteko dute beren kargua. Nolanahi ere, ordaina jaso ahal izango dute beren funtzioak betetzetik eratorritako gastuei aurre egiteko, baldin eta behar bezala egiaztatzen badituzte.

14. artikulua. - *Fundazioaren lehendakaria Lehendakariordea*

1. Lehenengo patronatuak bere kideen artean izendatuko ditu lehendakaria eta lehendakariordea.

Lehendakariordea arituko da lehendakariaren ordezko modura, hura ez dagoenean edo gaixo dagoenean, egoera horiek egiaztatzeko, aski izango da haiek hala adieraztea. Ez lehendakaria ez lehendakariordea ez badaude, berriz, Patronatuko kideen arteko adintsuenak ordezkatuko du lehendakaria.

Lehendakariaren ardura izango da Patronatuaren bileretarako deialdia egitea, bere kabuz nahiz Patronatuko kideen herenak gutxienez hala eskatuta, hiri dagokio, halaber, deliberazioak zuzentzea eta Patronatuaren erabakiak betearaztea.

2. Patronatuak lehendakariak gobernu organo horren ordezkari gisa izango du Organo horretako kide guztiek aitxikita dituzten eskumenak eta estatutu hauek Patronatuaren lehendakariari aitxikitzen dizkietenak izango ditu. Horrez gainera, Fundazioa ordezkatu du Patronatuaren eta Fundazioaren gainerako organoen akordioetatik eratorritako egintza eta kontratu guztietan, bai eta auzietan, espedienteetan, administrazio arazoetan, gobernu arazoetan, eta epailetan nahiz epailetatik kanpoko auzietan, halakorik gertatuz gero, Era berean, eskumena du prokuradoreei nahiz abokatuak auzietarako ahalorde de orokorra emateko.

15. artikulua. - Idazkaria

Patronatuak idazkaria izendatu ahal izango du bere kideen artean. Idazkariaren zeregina izango da Fundazioaren administrazio lanak zuzentzea, dokumentazioa zaintzea, eta bileren aktak prestatzea eta, horiek onartu eta lehendakariaren oniritzia jasotakoan, Akten Liburuan idaztea.

16. artikulua. - Diruzaina

Patronatuak diruzaina izendatu ahal izango du bere kideen artean, egoki badenitzo. Patronatuak esleitzen dizkion eginkizunak bete ditzan.

Funtzio hauek esleitu ahal izango zaizkio diruzainari:

1. - Fundazioaren funtsak biltzea eta zaintzea.
2. - Diru sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
3. - Inbentario, kontu eta aurrekontu eta egunkari liburuak arduratzea.

17. artikulua. - Fundazioaren zerbitzuko langileak

Era berean, Patronatuak gobernu organoko beste kide batzuen nahiz kanpoko hirugarrenen esku utzi ahal izango ditu gerentzia edo kudeaketa eta bestelako eginkizun batzuk; hala eginez gero, eginkizunaren arabera ordainsaria emango zaie ahalordetutako kideei.

18. artikulua. - Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumenak Fundazioaren gobernuari dagozkion alderdi guztiak biltzen ditu, horien artean hauek, bereziki:

1. Fundazioaren helburuak bete daitezen sustatzea eta Fundazioaren jarduerak ordainatutakoan ezarritako helburuarekin bat datorrela begiratzea.
2. Hezkuntza eginkizuna hedatzeko edo mugatzeko erabakiak onartzea, Fundazioaren baliabideen eta uneen uneko egoeraren arabera.
3. Erabakiak hartzea ikastetxe berriak sortzeki eta sustatzeko buruz; ikastetxearen edo ikastetxeen jardueraren eten partzial edo erabatekoari buruz eta hezkuntzako maila, etapa edo gradu berriak sortzeki buruz.



4. Eusko Jaurlaritzarekiko hezkuntza ituna sinatzea eta hura betetzeko delia bermatzea.
5. Fundazioaren jarduna bideratzea, haren helburuak ahalik eta hobekien betetzeko moduan.
6. Ekonomia eta finantza baliabide guztiak administratzea, haien jatorria edozein delia ere.
7. Honako dokumentu hauek onartzea: inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua, aurreko ekitaldiko memoria eta dagokion aldiko diru sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa.
8. Hurrengo ekitaldirako diru sarreraren eta gastuen aurrekontua onartzea, baita haren azalpen txostena ere.
9. Egoki irizten zaien barne arauak onartzea.
10. Zuzendaritza karguak, kargu bete-arazleak eta aholkularitza karguak izendatzea, eta behar diren gainerako langile teknikoak, administratiboak, lan kontratadunak eta mendeakoa kontratatzea, estatutu hauen 16. artikuluekin bat etorrita.
11. Orotarik egintzak, eta kontratuak formalizatzea eta onestea zibilak, merkataritzakoak, lan arlokoak, administratiboak eta beste edozein motatakoak, baldin eta Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko beharrezkoak badira.
12. Organismo eskumendunei egin beharreko proposamenak egitea, erabakia goragoko organo bati dagokion gaitan.
13. Herentziak legatuak edo dohantzak onartzea edo arbuatzea, Fundazioarentzat komenigarri irizten direnaren arabera, eta, betiere, Babesletzari horien berri emanda.
14. Fundazioaren estatutuak aldatzea, haren helburuen espirituarekin bat etorrita, baldin eta Fundazioa eratu zeneko egoera aldatu izanaren ondorioz Fundazioak ezin badu aritu estatutuetan aurreikusitako moduan, erakundea azkentzeko egoeran egon ezean.
15. Fundazioak antzeko beste fundazio batzuekin bat egin dezan sustatzea.

19. artikulua – Eskuordetzeak, ahalduntzeak eta ordezeko batzordeak

Patronatuak bere kide baten edo gehiagoren esku utzi ditzake bere ahal guztiak edo horietako batzuk, honako hauek izan ezik: kontuak eta aurrekontuak onartzea, kudeaketa arruntetik haragoko egintzak eta Babesletzak baimendu beharrezkoak.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugen barruan, Patronatuak ordezeko batzordeak eta batzorde bete-arazleak eratu ahal izango ditu, kasuan-kasuan zehaztutako eskumenak emanda. Era berean, ahaldun orokor edo bereziak izendatu ahal izango ditu, eginkizun marikomunatuak edo solidarioak betetzeko.

Emandako eta ezeztatutako eskuordetze eta ahaldufze orokorrak, auzitarakoak izan ezik, Fundazioen Erregistroan Inskribatu behar dira.

20. artikulua – Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren patronatuko kideek honako betebeharrak dituzte

- a) Fundazioaren xedeak zorrotz betetzea eta betearaztea, Legeak eta Fundazioaren estatutuek dioenarekin bat etorrita
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubiak administratzea, eta horien produktibitate osoari eustea, kudeatzailerik on baten ekonomia eta finantza irizpideen arabera
- c) Kargua lege ordezkariei dagokienez arduraz betetzea

21. artikulua – Autokontratazioari buruzko debekua

Patronatuko kideek ezin dute kontraturik egin Fundazioarekin, ez beren izenean ez hirugarrenen izenean, Babesietzak horretarako baimena eman ezean

22. artikulua – Erantzukizuna

Patronatuko kideek Fundazioarekiko erantzukizuna dute, Legeak ezartzen duen neurrian.

Erantzukizunetik salbuetsita egongo dira, ordea, erantzukizuna sorrarazi duen akordioaren kontra agertutako kideak edo akordio hori hartzen parte hartu ez zutenak, salbu eta egiaztatzen bada akordioaren berri izanik ez zutela adierazi desadostasuna

Fundazioaren Erregistroan inskribatuko da gobernu organoek erantzukizuna eskatzeko dagokion jurisdikzioaren aurrean egikaritutako egintza, baita erantzukizun eskariaren gaineko epaia ere

Babesietzak erantzukizun egintza hori egikaritu ahal izango du, bere kabuz edo interes zilegia duenak egindako zenituzko eskarian erantzunez.

Erantzukizunak ere egikaritu ahal izango dute, baldin eta Patronatuko kideen jarduerak Fundazioaren helburuei kontra edo kalte egiten badie

2. KAPITULUA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDU ARĀUBIDEA

23. artikulua – Barne funtzionamendua

Patronatuak urtean bi bilerak egingo ditu, gukxienez. Urteko lehenengo sei hilabeteetan bilerak egin behar du, nahitaez, honako dokumentu hauek onartzeko, estatutu hauen 29. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita: aurreko ekitaldiko



aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, aurreko ekitaldiko jardueren memoria eta egoeraren balantzea, eta emaitzen kontua. Bileran egin behar du, era berean, laugarren hiruhilekoan, aldeztu aurretik behar bezala deialdia eginda, hurrengo ekitaldirako aurrekontua onartzeko.

Patronatua elkartzeko deialdiak idatziz egin beharko dira. Idatzi horietan gai zerrenda adieraziko da; lehendakariak erabakiko du gai zerrenda, gobernu organiko kideen iradokizunak kontuan hartuta. Deialdia bileraren data baino 10 egun lehenago egin behar da, premiazko kasuetan izan ezik, kasu horietan, 3 egunekoa izango da deialdia egiteko gutxienezko epea.

24. artikulua. – Eraketa eta akordioak

Patronatua lehen deialdian baliozko moduan eratzeko, kideen bi herenak bertaratutako behar dute, gutxienez, horien artean direla lehendakaria eta lehendakariordea.

Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma lortu ezean, handik ordu erdira elkartuko da Patronatua, bigarren deialdian, nahikoa izango da kideen erdia bertaratzea, betiere lehendakaria eta lehendakariordea tartean direla.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaz gainera, Patronatua biltzeko deialdia egin dela eta baliozko moduan eratu dela joko da kide guztiak elkartu eta aho batez onartzen dutenean bilera egitea.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Aldaketa, bategileak eta azkentzea: parte-hartzaileen bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez.
- b) Patronatuak eskumenen bat uztea horretarako izendatutako ordezkari, ahalduen edo batzorderen baten esku: Patronatuko kideen bi herenaren aldeko botoa beharko da, gutxienez.
- c) Estatutu hauetan aipatutakoaz bestelako quoruma ezartzen zaion beste edozein kasu.

Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.

Idazkariak Patronatuaren bileren aktak idatziko ditu. Aktak zehaztu behar da, bilera zer tokian eta egunetan egin den ez ezik, bileran norke parte hartu duen, zer gai eztabaidatu diren eta zer erabaki hartu diren.

III. TITULUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZA

25. artikulua. – Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarea osatuko dute bakoitzeko ekonomikoaren arabera balioetsi daitezkeen orotariko ondasun eta eskubideak.

Fundazioak aplikagarri zaizkion arauak beteiko ditu kedadze eta administrazio egintzetan; eta dagozkion helburuetara –erakundearen ongintza eta hezkuntza helburura– bideratuko ditu haien etekinak edo errentak, estatutu hauekin bat etorrita.

26. artikulua. - Baliabideak

Fundazioaren ondasreak honako osagai hauek izango ditu edo izan ditzake:

- a) Hasierako hornidura, eraketa eskrituran adierazia.
- b) Kide eratzailleen ekarpenak eta kuotak, ohikoak nahiz ezohikoak; Patronatuak kideak beren borondatez onartzen dituzten kuotak eta ekarpenak, ohikoak nahiz ezohikoak, eta laguntzaile atxikiakien ekarpena, halakorik balego.
- c) Zuzenbidean onartutako bitartekoen bidez eskuratutako beste edozein ondasun edo eskubide, bereziki beste pertsona, organismo edo erakundeengandik jasotakoak, legatu, dohaintza, ekarpen eta diru laguntzen bidez. Dohaintza, legatu edo herentziarik onartuz gero, Babesleztari eman beharko zaio horien berri.
- d) Fundazioaren ondarearen eta jardueren etekinak edo errentak, emaitzak edo onurak, eta emandako zerbitzuengatik ordainsariak, indarrean dagoen legediaren arabera.
- e) Hezkuntza itunak eta Administrazio Publikoak emandako ezein diru laguntza.
- f) Aplikagarri zaien lege esparruko beste edozein baliabide.

27. artikulua. - Ondare aldaketak

Fundazioaren patronatuak inolnahi eta behar adina aldiz aldatu, eraldatu edo bihurtu ahal izango du Fundazioaren kapitala; egoera ekonomikoak zer gomendatzen duen kontuan hartuta egingo dira eragiketa horiek, eta horien helburua izango da kapitalak balio izendatuari eutsita ere benetako balioa edo erosteko ahalmena ez galtzea.

28. artikulua. - Fundazioaren ondarearen zaintza

Fundazioaren ondarea zaintzeko eta jabetako, honako arau hauek beteiko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek Fundazioaren izenean egon behar dute; eta haren inbentarioan agertu behar dute; gainera, dagozkien erregistroetan inskribatu beharko dira, hala dagokienean.
- b) Ondasun higiezinak edo/eta eskubide erreala Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskribatzeko moduko beste ondasunik izanez gero, dagozkien erregistroan inskribatuko dira.
- c) Patronatuak zehaztutako entitatean gordailutako dira honako ondasun hauek, Fundazioaren izenean: baloreak eta esku dirua, jabetza titulua, gordailu gordekinak.



eta, oro har, jabaria, edukitza, erabilera, gozamena edo Fundazioaren titulartasuneko beste edozein eskubide egiaztatzen duten dokumentuak.

d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak zehaztutako moduan zainduko dira.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak inbentarioen Liburuan zehaztuta egongo dira. Liburu hori Patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da, eta bertan adieraziko dira ondasunak eta eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko inguruabar guztiak, haren ikuskaritzapean.

II. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

29. artikulua. - Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoak izango dira, eta egutegiko urtearekin bat hasi eta bukatuko dira.

Fundazioak aurrekontu arrunt bat prestatuko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, diru sarrerak eta gastuak modu prekatsuan jasota.

Aurrekontu hori Babesletzari aurkeztu beharko zaio, aurrekontua onartu beharreko urteko azken hiruhilekoan, azalpen txosten batekin batera.

30. artikulua. - Ekonomia eta kontabilitate betebeharrak

Patronatuak inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua prestatuko du. Fundazioaren ondare ekonomia eta finantza egoeraren berri emateko, era berean, urtean zehar egindako jardueren txostena ere landuko du, baita ondarearen kudeaketa ekonomikoarena ere. Dokumentu horien bidez jakinarazi eta egiaztatuko da Fundazioaren xedeak eta lege arauak bete direla. Halaber, Patronatuak aurreko urteko diru sarrerak eta gastuen aurrekontua likidatuko du, lege zeharritako xedapenak betez.

31. artikulua. - Kontuak ematea

Urteko lehenengo sei hilabeteetan, Patronatuak Babesletzaren aurrean egiaztatuko du bere kudeaketa bat etorri dela Fundazioaren helburuekin, Fundazioei buruzko Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

32. artikulua. Kontu ikuskaritza

Legeari eta Araudiari jarraituz Fundazioak duen maila ekonomikoa dela eta, haren kontuen kanpo ikuskaritza egingo da urtero.

Ikuskatzaileen txostenean, honako hauek adierazi beharko dira, gutxienez:

a) Urteko kontabilitatearen eta kontuen bidez egiaztatutako balizko lege arauen edo estatutuen urratzeei buruzko oharrak.

b) Fundazioaren finantza egoerarentzat arriskutsu diren gertaerei buruzko oharrak, halakorik egiaztatuz gero.

Ikuskerak diren emandako txostenak Fundazioaren Erregistroan gordailutu behar dira txostenak egiteko erabiltzen diren kontuekin batera.

III. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURUEI APLIKATZEKO ARAUAK

33. artikulua. – Diru sarreraren norakoa eta administrazio gastuak

1- Fundazioaren ondasunak eta errentak Fundazioaren helburuak betetzeari zuzen-zuzenean lotunk daudela ulertuko da.

2- Fundazioak bere xedeari lotunk jarduerak antolatuko ditu, aldiari-aldiari, horretarako, prestazioen urteko planifikazioa egingo da eta horiek nola gauzatu eta esleitu adostuko da.

3- Fundazioak bere helburuak betetzera bideratuko ditu, horizen diren hiru urteko epearen barruan, errenta garbien %70, gutxienez, baita bestelako edozein diru sarrera ere, horiei zergak kenduta, hala dagokienez.

Betekizun horietatik salbuespenak geratuko dira ondarea eratzeke unean nahiz aurrerago hornidura modura ezarriako ekarpenak.

Gainerako diru sarrerak Fundazioaren hornidura handitzera bideratuko dira, administrazio gastuak kenduta. Administrazio gastuek ezingo dute gainditu sarreraren %20a. Fundazioak eskari arrazoiak egin eta Babesleak berenakiko baimena eman ezean, indarrean dauden lege eta arau xedapenetan aurreikusitakoarekin bat etorrita.

IV. TITULUA. ALDAKETA, BATEGITEA ETA AZKENTZEA

34. artikulua. – Aldaketa

Fundazioaren patronatuak estatu hauen aldaketa sustatu ahal izango du, Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko komeni dela irutzen bazaila. Estatutuak aldatzeko erabakia hartzeko, Patronatuko kideen 2/3en aldeko botoa beharko du skordioak, gutxienez.

35. artikulua. – Bategitea

Patronatuak halaber erabaki ahal izango du Fundazioak beste entitate batekin edo batzuekin bat egitea, baldin eta hori eginez Fundazioaren xedeari behar bezala erantzuten bazaila. Erabaki arrazoiak izan behar du, dena den, eta Patronatuko kideen 2/3en aldeko botoa beharko du, gutxienez.



36. artikulua. - Azkentzea

Fundazioa azkendu egingo da:

1. Patronatuak hala erabakitakoan, Fundazioa eratu zeneko egoera aldatu izanaren ondorioz Fundazioak ezin badu ariju estatutuaren aurreikusitako moduan. Nolanahi ere, hala gertatuz gero, Patronatuak estatuak aldatu ahal izango ditu, 34. artikuluan adierazitako moduan.
2. Kode Zibilaren 39. artikuluan edo beste lege batzuetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero.
3. Bategile prozesu baten ondorioz.
4. Epailearen ebazpen irmoak aginduta deseginez gero.

37. artikulua - Azkentze prozedura

Aurreko artikuluen 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako kasuetan, Fundazioa azkentzeko erabakia Patronatuak hartu beharko du, eta Babesletzak berretsi.

Azkentzeko akordioak arrazoitua beharko du izan, nolanahi ere, eta ondare egoera eta likidazio programa adierazi beharko ditu.

Gobernu organoaren akordiorik ez bada, edo Babesletzak akordioa berresten ez badu, epailearen ebazpen arrazoitua beharko da Fundazioa azkentzeko. Ebazpena Babesletzak edo Fundazioaren organoak eskatu ahal izango dute, dagokionaren arabera.

Azkentze akordioa, edo, hala dagokionean, epailearen ebazpen arrazoitua, Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

38. artikulua - Likidazioa

Eraketa eskrituran adierazitako eratzalearen borondatearekin bat etorriz, Fundazioaren likidaziotik geratzen diren ondasunak eta eskubideak interes orokorreko helburuetarako erabiliko dira; Patronatuak erabakiko du zer helburutara bideratuko diren, zehazki, Fundazioaren espiritua kontuan izanik. Patronatuak erabaki ezean, Babesletzak beste fundazio edo erakunde batzuen esku utziko ditu ondasun eta eskubide horiek, betiere, azkendutako fundazioarenaren antzeko helburuak badituzte; horien artean, lehentasuna emango zaie egoitza udalari berean edo, halakorik ezean, lurralde historiko berean dutenei.

V. TITULUA. BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

39. artikulua. - Babesletza

Fundazioa Babesletzaren zaintza, aholkularitza eta kontrolpean dago, indarrean dauden legeek aurreikusitako moduan.

40. artikulua. – Fundazioen Erregistroa

Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira Fundazioaren egintza edo negozio juridiko guztiak, Legearen arabera beharrezkoa den neurrian.

VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEI BURUZKO ARAUBIDEA

41. artikulua. – Fundazioaren laguntzaileak

EREITEN FUNDAZIOAK berariaz adierazten du Fundazioa ikasleen gurasoei eta ikastetxeko langileei irekitzeko borondatea, bereziki ikastetxeen titulartasuna bere gain hartzeari loturik; horretarako, Patronatuak erabakitako prozeduran jarraituko dio.

42. artikulua. – Laguntzaile atxikiak

Eraketa eskritura eman ondoren, Fundazioarekin bat egin ahal izango dute pertsona fisikoek edo juridikoek, laguntzaile atxiki modura, baldin eta haien jarduera edo ekarpena lagungarria gerta badaiteke Fundazioaren helburua lortzeko.

Golan adierazitako atxikimendu eskaria onartzeko, aldeko botoa eman beharko diete Patronatuko kideen bi herenek, gutxienez, horien artean direla lehendakaria eta lehendakariordea. Patronatuak erabakiko du, halaber, laguntzaile izateko eskaria egiten duten hautagaiek egin beharreko diru ekarpenaren zenbatekoa, ekarpenik egin behar izanez gero. Laguntzaileek Patronatuan parte hartu ahal izango dute, hark hala erabakiz gero.

43. artikulua. – Ohorezko laguntzaileak

Patronatuak ohorezko laguntzaile izendatu ahal izango ditu Fundazioaren helburuak lortzeko ekarpen esanguratsua egin duten edo egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak.

